

MAHAI INGURUA. BILBOKO MERKATARITZA GANBERAREN ONDORIOAK

Urte batzuk itxaroten egon eta gero, azkenean hain desiratua zen Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko Dekretua kalera atera da. Biziki desiratua, baina behin zabaldua agian ia guztientzat urri gera daitekeen Dekretua. Kontsumitzaile euskaldunek, saltoki txikiak kanpo geratu direla ikustean, gutxiegi dela pentsa dezakete. Enpresariak aldiz, beren eginbideak mugatzen dituzten baldintzak ezarri dizkiotela pentsa dezakete (adibidez, langile berriak kontratatzeko, langile eza dago eta are gehiago langile euskaldunak aurkitzeko).

Bilboko Merkataritza Ganberak, bere Barne Merkataritza Batzordearen bitartez, Dekretuaren borradorea egiterakoan parte hartu zuen, sektorea eta administrazioren arteko bitartekari funtzioa betetzen. Borradorea aztertu eta irakurketa zehatza egin ondoren, sektorearen errealitatea ikusita alegazio batzuk aurkeztu ziren, Dekretuaren artikulua ahalik eta ondoen sektorean moldatzeko.

Sektorearen errealitatea zer den aztertzeko, ikerlan berezi bat burutu zen. Ikerlan hori, Merkataritza Ganberak lau urtero egiten den “Bizkaiko erosteko ohituren azterketa” barruan kokatu zen eta, labur bilduz, honako emaitzak eman zituen:

Galdera 1: Erosketak egiterakoan zein hizkuntzetan gustatuko litzaizuke atenditzea?

Euskara	% 15
Gaztelania	% 85

Galdera 2: Eta egiaz, ohizkoz zein hizkuntza erabiltzen duzu erosketak egiterakoan?

Euskara	% 8
Gaztelania	% 92

Oinarria: lagina guztia
Iturburua: Erosteko ohituren azterketa 2008. Bilboko Merkataritza Ganbera-Ikerfel

Datu hauek ikusita, kontsumitzaileak Bizkaian, orokorrean, ez du saltokietan euskararen erabilera eskatzen (herri zehatz batzuk izan ezik, Markinan eta Ondarroan, adibidez) eta datu hauei honako beste arazoak gehitzen badizkiegu, euskararekiko errealitate zail bat topatzen dugu:

- Sektorearen aldaketa izugarria jasotzen ari da, merkatal zentro handien agerpenaren ondorioz, euskararen arazoa bigarren planoan uzten.
- Heziketa eta prestakuntza eza handia.
- Langile berriak, batik bat, etorkinak dira.

Beraz, sektorearen larritasun nagusiak profesionaltasuna lortzea eta kalitatezko zerbitzua ematea dira, eta etorkizunean lan handia egin beharko dugu euskara ere bi gai hauetan oinarrizko parte izateko.

Bukatzeko, ipini diren neurriak, dirulaguntzak esaterako, beharrezkoak direla goraiatu dugu, baina inportanteena prozesu osoan partaideek jarri duten borondate ona izan da, eta hori denon artean mantendu behar dugu, adostasunez irtenbide egokiak bilatuz.

Bilbon, 2008ko azaroaren 21ean
Kepa Jugo, Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberako
ekonomilaria